



8. epigrafea. Lizentziak eta mota guztietako baimenak ematea.

Bide publikoko lurzorua, hegalkinak eta lur-azpia edota udaleko lursailak eta jabetzak okupatzeko aprobetxamendu bereziko lizentziak edo baimenak ematen direnean, egitate zergagarria sortuko da. Aprobetxamendu berezi horren barnean daude, beraz, bide publikoan ipintzen diren mahaia, aulkiak, mahai-hankabakarrak, haize-babesak, lorontziak, eguzkitakoak, hoditeria, kableak, erregistroak, aparkatzeko eta ibilgailuak finketara sartzeko erreserbak, bide publikoan saltzeko gailuak, aisia-gailuak, barrakak, zirkuak, etxetxoak eta abar. Epigrafe honetan sartzen dira, halaber, ura eteteko baimenak ere. Halaber, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimenak eta jarduera sailkatuen irekiera baimenak ere, betiere, jarduera baimena eskuratu badute aldez aurretik (3/1998 legea)

Aurreko lerroaldean adierazitako aprobetxamenduen baimena ematen den unean bertan sortuko da ordaintzeko betebeharra.

I. Tarifa.

Bakarra: 48,81 euro

II. Tarifa aplikatzeko arauak.

1. Baimena edo lizentzia eskatzen denean ordaindu beharko da kuota, eta ordaindu bezain laster sartuko da indarrean.
2. Eskuratutako baimenak ez badira erabiltzen, ezingo da dirua itzultzerik eskatu.

9. epigrafea. Animaliak jasotzeko zerbitzua.

1. Durangoko udal-barrutian animaliak atzematea, identifikatzea, udal-aterpean edukitzea edo erraus-tea/eutanasia egitea, ekintza horiek egitate zergagarria sortuko dute. Animalia jasotzerakoan –jabearen baimenarekin zein gabe– tarifa ordaindu beharko da, animalia bide publikoan laga bada.
2. Pertsonaitsuak tasatik salbuetsiak egongo dira berreskuratutako txakurra itsu-gidaria bada.

Kontzeptua	Kuota
Animaliak atzematea.	60,00 €
Udal-aterpean egotea, eguneko	17,00 €